

GURE HIZKUNTZAK

Hizkuntzak elkar ulertzeko, sentitzen duguna adierazteko eta garena izateko tresna bikainak dira. Sekuentzia honetan ikasiko dugu Durangon zein hizkuntza mintzatu izan diren lehen eta orain; zein den gure hizkuntzen bitxilorea...

Hizkuntzak aberastasuna eta gozamena ere badirelako, ospatu dezagun daukagun hori kantatuz eta dantzatuz!

<i>Mari eta konpainia</i>	2
<i>Osaba Bittorren ipuina</i>	3
<i>Hizkuntzen Bitxilorea</i>	4
<i>Hizkuntzak ikasgelan</i>	5
<i>Hizkuntzak Durangon</i>	6
<i>Berbaro Elkartea</i>	7
<i>Hizkuntza, komunikatzeko tresna</i>	8
<i>Negua joan da ta</i>	9
<i>Berba barik</i>	10
<i>Azken ekoizpena</i>	11
<i>Zer ikasi dut?</i>	12

Lege gordailua: SS 1161-2015 • **Argitaratzailea:** Durangoko Udala eta Iametz Interaktiboa • **Koordinazioa:** Iametz Interaktiboa • **Edukien egilea:** Unai Iturriaga • **Diseinua eta maketazioa:** Garbine Ubeda Goikoetxea • **Hezkuntza aholkulariak:** Jon Akarregi, Ander Goikoetxea eta Josu Retolaza • **Argazkiak:** Unai Iturriaga, Museo Vasco del Ferrocarril, Gerediaga Elkartea, Oskorri Taldea eta Durangoko Udala • **Kolaboratzaileak:** Landako eskola, Kurutzia ikastola, San Jose Jesuitak ikastetxea, San Antonio-Santa Rita ikastetxea, Frai Juan Zumarraga institutua, Nevers ikastetxea eta Zabalarra eskola • **Inprimategia:** Antza, S.A.L.

Mari eta konpainia



Eskolatik irteterakoan...



¡VANA!
PRIMA MÂNCA SANDWICH!

¡VENGA, MARI!
¡QUE TENGO EL COCHE
EN DOBLE FILA!




ZER ARRAROA!
ZUEN GURASOEI EZ DIET
EZER ULERTU!

NOSKI! GURE ETXEAN
BETI WOLOFERAZ
HITZ EGITEN DUGU.

GUK ERRUMANIERAZ.
ETA ZURE AITAK EZ
DAKI EUSKARAZ?

ITXARON!



BERRIKETAN

- Orain ehun urte zein hizkuntza erabiltzen ziren Durangon? Eta gaur egun?
- Zertarako eta non erabiltzen dira hizkuntza hauek?
- Badakizu zein hizkuntza diren ofizialak Durangon?

Durango txikia

Sekuentzian zehar gure Durango txikia sortzen joango gara. Hizkuntzekin zerikusia daukan edozein material ekarri dezakezue. Ziur azken ekoizpenera bidean lagungarri gertatuko zaizkigula!

Osaba Bittor

Ez da eskolako lanak egitea ez dudala gustuko. Kontua da, lana zein den edo gaia zein den, gurasoek askotan esaten didatela, “Galdetu egi-ozu Osaba Bittorri”. Eta Osaba Bittor geure solairu berean atez ate bizi den arren, beti egoten da atalondoko harrizko bankuan jesarrita. Beno, beti ez, arratsaldetan, ze, goizez lo egiten du gauzez ez duelako egiten baina hori esplikatuko dizuet hurrengo batean.

Egia esan, Osaba Bittor ez da nire osaba. Ez dakit zergatik deitzen diogun osaba Osaba Bittorri. Gurasoek jakingo dute zergatik. Gauza asko dira nik ez dakizkidanak. Baina gurasoek ere ez dakizkitez beste asko, e! Horregatik bidaltzen naute Osaba Bittorregana. Eta ni pozarren joaten naiz ze, Osaba Bittor kalean egoten da, atalondoko harrizko bankuan jesarrita, eta niri kalean egotea gustatzen zait.

“Zer dakarzu gaurkoan, ume?”. “Ume” esaten dit beti Osaba Bittorrek eta niri ez zait batere gustatzen baina hori gero esango diot, ze, orain, galdera baten erantzuna behar dut eta, lehenengoa lehenengo, eta bigarrena bigarren.

“Zer hizkuntza hitzegiten zen Durangon lehen?” galdetu diot. “Lehen eta orain, lurra behean eta zerua goian”. Askotan, lehenengora behintzat, ez diot ezer ulertzen Osaba Bittorri. “Entzun, ume”. “Ume?!”. Berriro “ume” esaten badu, banoa etxera!

“Erregeren batek Durango Durango zela erabaki zuen garaian, aspaldi, hiru ziren hizkuntzarik nabarmenenak: lurrean, herri xeheak, gehiengoak, euskara zerabilen. Jauregietan eta gorteko paperetan, erromantzea, gaurko gazteleraren berraitite zena. Eta, zerurako pasajeak saltzen zituzten eleizetan, latina”. “Baina, zeruak ba al dauka, bada, hizkuntza propio-rik?”. “Jakina!”. “Latina?” galdetu diot nik. “Haizearen hizkuntza, ume, haizearena!... Fiuuuu! Fiuuuu!”. Eta barrezka hasi da. Niri hasieran ez dit grazia-rik egin baina badaezpada neuk ere barre egin dut beste galdera bat neukalako eta hobe delako Osaba Bittor umorez harrapatu haserre baino.


“Orduan, Osaba Bittor, euskara lurraren hizkuntza da?”. Osaba Bittorrek betaurrekoak kendu eta jertsearen muturrearekin garbitu ditu. Beti egiten du keinu hori beretzako garrantzitsua den zerbait esan behar duenean. “Hara, ume, hizkuntza guztiak dira lurrarenak. Arazoa hizkuntza baten gainean lurra botatzen denean sortzen da. Baina ez dira hizkuntzak elkar estaltzen dutenak, ume, hiztunak baizik”.

Gero, betaurrekoak sudur gainean kokatu eta zerura begira geratu da.

“Eskerrik asko, Osaba Bittor”, esan diot. “Ez horregatik, ume”.

Sutu egin naiz eta bota egin diot azkenean: “Ni ez naiz umea, aditu!”.

“Ui! Ui! Ui!... Zenbat haize! Fiu! Fiu!...”.





Hizkuntzen bitxilorea

Hizkuntzak komunikatzeko tresnak direla esan dugu baina hori baino gehiago ere badira. Hizkuntzak gure nortasunaren parte dira eta askotan herrien identitate zeinu nagusia ere izaten dira.

Hizkuntzek gure aurrekoekin eta ondorengoekin lotzen gaituzte, harreman eremuak sortzen dituzte, mundu eta aukera berriak zabaltzen dizkigute.

ORDUAN,
OSABA BITTOR,
EUSKARA LURRAREN
HIZKUNTZA DA?


HIZKUNTZA
GUZTIAK DIRA
LURRARENAK,
UME



OSATU

Osaba Bittorrek dioen moduan, hizkuntza guztiak dira lurrarenak. Bitxilorea ere lurretik sortzen da eta horregatik guk lehenik geure hizkuntzen bitxilorea egingo dugu. Zer den Nire Hizkuntzen Bitxilorea? Bada, zure bizitzan eta harremanetan, izan familian, lagunartean zein eskolan erabiltzen dituzun hizkuntzekin osatutako lorea.


- Lorearen bihotzean geure izena idatziko dugu eta hosto bakoitzean erabiltzen dugun hizkuntza edo hizkuntzak eta norekin erabiltzen dugun, haren izena.





Nork bere Hizkuntzen Bitxilorea osatu ostean, Ikasgelako Hizkuntzen Bitxilorea osatuko dugu, bakoitzaren bitxiloreetan agertutako hizkuntza bakoitzeko hosto bana gehituz (hizkuntza bakoitzeko bakarra). Kasu honetan, erdian Euskara jarriko dugu, eskolako hizkuntza horixe dugulako.

Ikasgelako Hizkuntzen Bitxilorea lehenik eta behin gure lan koadernoan osatuko dugu eta ondoren, kartulinekin, ikasgelako horman irudikatuko dugu neurri handian.



Hizkuntzak Durangon

Durangoko udalerrian bi dira hizkuntza ofizialak: **euskara** eta **gaztelania**. Hizkuntza bat ofiziala izateak esan gura du edozein herritarrek eskubidea duela hizkuntza hori erabili eta beharrezko dituen zerbitzuak hizkuntza horretan jasotzeko.

Horrek ez du esan gura bi horiek direnik gure herrian hitz egiten diren hizkuntza bakarrak. Egin kontu, Durangon mundu hirurogei herrialdetik gorako herritarrak daudela errol-datuta. Baliteke batzuk euren herrialdean hizkuntza bakarra erabiltzea baina beste askok, hizkuntza bi edo gehiago ekarri ohi dituzte euren herrialdeetatik. Egin biderketa!





DURANGO

Biztanleak:
28.966

Hizkuntza ofizialak:
Euskara eta gaztelania.

Herritarren jatorrizko herrialdeak:
60tik gora.



ZORIONEKOAK ZUEK, ELEBIDUNAK EDO
ELEANIZTUNAK IZANGO ZARETELAKO!



Eta zuek badakizue
zer esan gura
duten Elebakar,
Elebidun eta
Eleaniztun berbek?

Ezagutzaren bilakaera

Osaba Bitorrek dion moduan ez dira Mari eta konpainia Durangon elebidunak diren bakarrak. Zorionez, azkeneko 30 urteotan euskararen ezagutzak gora egin du Durangon. Hona hemen bi grafiko datuak alderatu ditzazuen.




Elebiduna: euskara eta gaztelera menperatzen dituenak. **Elebidun hartzailea:** euskara ulertzeko gai den arren, berbaz moldatzen ez dena. **Erdaldun elebakarra:** gaztelera bakarrik ezagutzen duena.



KONPARAKETA LANDU

- Konparatu 1986ko eta 2011ko euskararen ezagutza datuak, konparaziozko esaldiak osatuz. Adibidez:

- 2011. urtean 1986.ean baino elebidun gehiago/gutxiago zeuden.
- 1986 eta 2011ko datuak alderatuta...
- Konparaziora erdaldun elebatar gutxiago/gehiago dago urteanurtean baino.



BERBETAN

- Euskararen ezagutza datuak ezagutu ditugu, baina zer diozue erabilerari buruz?

ZER EGIN
DEZAKEGU DURANGON
EUSKARA GEHIAGO ERABIL
DADIN?

ETA GEUK
GEHIAGO
ERABILTZEKO?



Nork? Zer? Noiz?

*Berbaro Elkarte*a Durangoko Euskaltzaleen elkarte da. 1989an sortu zuten euskararen egoeraz kezkatuta zeuden Durangoko hainbat euskaltzalek. Sasoi hartan Durangok 22.000 biztanle inguru zituen eta horietatik herena baino zertxobait gehiago baizik ez zen euskalduna.

Geroztik hainbat lan egin du haur eta gaztetxo zein helduekin, herriko elkarteekin zein erakundeekin batera. Mende laurdena bete eta gero ere bizirik eta indartsu jarraitzen du Berbaro elkarteak Durango euskaldunago baten aldeko lanean.




Haur Literatura Aretoa da Berbaro Elkartearen ekimenik zaharren eta arrakastatsuenetakoa.

BERBARO

Informazio gehiago: www.berbaro.eus

Izan al zarete inoiz bertan?

Hizkuntza, komunikatzeko tresna





ORAIN ARTE
BERBAZKO HIZKUNTZEI BURUZ
ARITU GARA. EZAGUTZEN DUZU
BERBAZKOA EZ DEN HIZKUNTZA EDO
KOMUNIKATZEKO MODURIK?

ZEINTZUK?

Hizkuntzak, beste gauza askoren artean, oinarri-oinarrian, komunikatzeko tresnak dira. Gure sentimenduak, arrazoiak, gogoetak, burutazioak zehatzago adierazi ahal izateko tresna ezinbestekoak ditugu hizkuntzak.

Hala ere, ez da derrigorra berbazko hizkuntza erabiltzea elkar ulertzeko. Badira berbazkoak ez diren hizkuntzak ere, gormutuen zeinu hizkuntza, kasurako. Edo gorputzaren espresioen bidez sarritan ia oharkabeen erabili ohi dugun hizkuntza, edo mimika...



Eskuekin eman daitezkeen
beste zenbait mezu.

Zeinu hizkuntzaren
gaztelaniazko alfabetoa.



Ikusi eta entzun Zea Mays Bilboko musika taldearekin Ainhoa Moia zeinu hizkuntzako interpreteak egindako *Negua joan da ta* kantuarien bideo-klipa. Lortzen ote du kantaren indarra eta hunkidura adieraztea zeinuen hizkuntzaren bitartez?



Zea Mays

1997an Bilbon sortutako taldea da, Asier Basabe (bateria), Ruben Gonzalez (baxua), Iñaki Imaz (gitarra) eta Aiora Renteria (ahotsa) dira taldekideak. Zazpi disko kaleratu dituzte urteotako ibilbidean. 2010ean argitaratutako *Era* diskoan jaso zuten *Negua joan da ta* kantu ezaguna.

Negua joan da ta


*Elurrak joan direnean nire mendien artean
eguzkia teloiari atzekaldean da
Ateratzeko beldur da, beldur eszenikoa
aspaldi antzeztu ez duen obra honetan
Izpi txiki txikiren bat agertuz doa gaurkoan
poztasun handi batek besarkatzen nau
Mesedez ozen esan negua joan egin dela
nire arima hotzak ez du sinisten eta
Laztandu nazazu orain, ur urdinen artean
orain lainorik ez da, aurpegi biluziak
ta larrua jotzean garrasirik ozenena,
gordin amaigabea, negua joan da ta.
Jaio berrien antzera taupaden beharra dut
orain
belarriekin ikusteko nire begiek entzuten ez
dutena
Mesedez ozen esan negua joan egin dela
izara guztiak erre ditut eta
Soinu bakar bakarra zure bularraldean
negua joan da ta
borobildu zaizkit ertzak zure ondoan
izpi lasaigarri bat
negua joan da ta, negua joan da ta*

Berba barik

Orain zuen txanda da. Zeinuen hizkuntza bera, edo besterik barik gorputzaz egindako keinuak baliatuz, taldeka, egoera batzuk antzetu beharko dituzue. Adibidez:



- Alboko lagunaren aurkezpena egin: bere izena, non bizi den, zer itxura duen...
- Lagun arteko egoera konkreturen bat: gozokiak erosten, arropa erosten...
- Ikasleen intereseko egoeraren bat...



Bazenekien?

Munduan 6.700 hizkuntza daude. Hizkuntza gehien biltzen dituen kontinentea Afrika da.

Hizkuntza horietatik guztietatik 2.500 galtzeko arriskuan dauden zerrendan daude.

UNESCO* ren arabera. Euskara, nahiz eta 800.000 hitzun izan, zerrenda horretan dago.

Euskara Europako hizkuntzarik zaharrenetakoa omen da eta ez zaio bestelako hizkuntzarekin ahaidetasunik ezagutzen.

Euskal Herrian bertan ehun hizkuntzatik gora hitz egiten dira, gehienak afrikakoak.

*UNESCO: Hezkuntza, zientzia eta kulturarako Nazio Batuen erakundea.



Munduko hizkuntzen mapa interaktiboa: <http://landscape.umd.edu/map.php>

Trebetasunak martxan jartzeko momentua da. Eskolako kideen aurrean kanta bat abestu eta interpretatuko dugu keinu bidez.



Zer dio kantuak? Bertsio originala 1992an Vianan (Nafarroa) ospatu zen Nafarroa Oinezarako egin zen. Bideoan ikusiko duzuen bezala, hainbat herrialdeetako lagunek euren herria bertako hizkuntza barik arraroa irudituko litzaiekeela adierazten dute.

Gure proposamenean aldaketatxo batzuk egin dizkiegu Bernardo Atxagaren hitzei. Zertarako? Durangon erabiltzen diren zenbait hizkuntza sartzeko. Kontuan hartu ondoren irakurriko duzuen proposamen bat baino ez dela. Zuen Ikasgelako Bitxilorean beste hizkuntzarik agertu bada eta letra egokitzerazera ausartzen bazarete, ondo baino hobeto!

Arraroa noski!

Jatorrizko hitzak: Bernardo Atxaga / **Hitzen bertsioa:** Gu geu

Jatorrizko musika: Jabier Muguruza / **Bertsioa:** Bittor Aiape / **Bertsioaren bertsioa:** Itsua

Doyna waar luñu doule waax Wolof Dakar
Arraroa noski, Wolofera gabe Dakar

¡Qué extraño, Madrid sin castellano!
Arraroa noski gaztelera gabe Madril
Eta hau ere ez al da arraroa?
Euskararik gabe gure herria!

Lingua Vasconum
Lingua Navarrorum
Ze(in) arraroa euskararik gabe...
gure herria!

Mina nujal la ta keliu garabia Rabat
Arraroa noski, arabiera gabe Rabat

Ce ciudata Bukarest fara limba româna
Arraroa noski, errumaniera gabe Bukarest
Eta hau ere ez al da arraroa?
Euskararik gabe gure herria!

Lingua Vasconum
Lingua Navarrorum
Ze(in) arraroa euskararik gabe...
gure herria!

How strange not being able to speak
english in London

Arraroa noski, ingelesik gabe London
Que estranho Lisboa sem o portugues
Arraroa noski, portugese gabe Lisboa
Eta hau ere ez al da arraroa?
Euskararik gabe Gure Herria!

Lingua Vasconum
Lingua Navarrorum
Ze(in) arraroa euskararik gabe...
gure herria! (err.)

Kontuan hartu

- 1 Kantuaren estrofak taldeka banatu eta errepikak guztiok batera kantatu.
- 2 Kantatzerakoan entzuleei begiratu, ez paperera.
- 3 Argi eta ozen abestu, baina oihurik egin gabe, ez da beharrezkoa.
- 4 Gogoratu zeinuen hizkuntzan eta gorputz espresioan ikasitakoak kantuari laguntzerakoan.
- 5 Gozatu. Gauzak plazeraz egiten direnean askoz hobeto ateratzen dira.



Ez ahaztu!

Kantua jendaurrean ematen duzuenean, bideoz jaso.

Zer ikasi dut?



1. Zer ikasi dut?

.....

.....

2. Zelan ikasi dut?

.....

.....

3. Zer ikasi dut nire ikaskideengandik?

.....

.....

4. Emandako informazioa, materiala, egokia izan da?

.....

.....

5. Gehien gustatu zaidana

.....

.....

